

# Gorosta baillaria



Maala

# Gorosta baillaria

**S**asoï baten, Mandiola eta Gorosta baillarak, auzo bakarra osatzen zeben Akondia izenpian. Aspaldi honetan, ostera, zati bittan banatu da eta Gorosta Ballia izen bereko errekian arruan daguazten lur eta basarrixek eta Akondia eta Garagoitxi gaiñek osatzen dabe. Salbuespena Mugitza aldeko basarrixak dira, Gorosta arruan egon arren Arrate Balleko parte dira-ta. Guztira 348,030 hektarea dakaz; Eibarko bost auzuen artian txikiña da (Otaola Ballian erdixa). Hala eta guztiz be, basarri kopurua ez da makala eta gizaldixetan zihar 41 basarri ezagutu izan dittu auzuak. Eta ez edozelakuak gaiñera, basarrixetako batzuk sekulako garrantzixa eta eragiña euki dabe-eta gure herrixan gora-beheretan. Ezkaregi, Altzua edo Zezeil basarrixek hamaikatxo idazkari, abade, erregidore eta alkate laga dittue Eibarko historixan. Dana dala zenbaki horrek ederto egin dau behera azken urtiotan eta gaur egun 23 besterik ez dira baillara honetan geratzen diran basarrixak. Beste 6 etxe edo txabola bihurtu dira (Azitain, Gorosta Abeletxe, Akartegieta...) eta 12 jausitta dare edo betirako desagertu dira (Bizkartegi, Altzua, Ametzaga, Maala, Txarakua...).

Eibarko gaiñontzeko auzuetan letxe, Gorostan be mende honen erdikaldera arte garixa eta artua izan dira gehixen landu diran gaixak. 1812ko basarri-zerrendan argi eta garbi agertzen danez, barazkixetaz gaiñera (lekak, babak, patatak...) artua eta garixa basarri guztietan landatzen zan. Urte horretan, gaur egun hutsik daguazten basarri bi, Akartegieta eta Altzua, izan ziran anega gehixen batu zittuenak: 60 anega gari eta arto lehelenak eta 70 bigarrenak. Zelako penia emoten daben gaur egun basarrixok erdi jausitta ikustiak!

Urtiak jua eta urtiak etorri, baratz eta soluen itxuria goittik behera aldatu da eta gaur egun ezin da gari alerik topatu Eibarko basarrixetan eta artua be gero eta gitxiago. Piñua da errege barrixa eta Gorostan be ez da falta. Hainbeste urte eta gizaldittan zihar auzuan bihotza izan zan Ezkaregi Errotia be aspaldittik dau sasi artian ezkutatuta. Dana dala, Gorosta Ballian basarri gehixenak martxan daguazenez, ganaua eta zelaixak be oindiokan ugarixak dira eta harizti, altzadi eta pagadi txiki batzuk be topatuko doguz ondo begiratu ezkeru. Orbe eta Biriñaotik gora egin eta leku aparta da Gorosta arratsaldia pasatzeko.

## ADARRATZA BEHEKOA / Adarratza Behekua



**Distantzia:** 4 kilometro

**Altueria:** 395 metro

### FITXA TEKNIKIA

**Egoeria**  
**Datu**  
**aittagarriak**

Hutsik. Txabola bihurtuta.

- Toki izen moduan 1740xan aittatzen da lehelengoz.
- 1888xan Jose Zubiaurre bizi zan bertan. Handik aurrera basarrixakin zer pasatu zan ez dakigu baiña aspalditik ez da iñor bertan bizi.
- Elusko Frantzisko Narbaizak erosi zeban eta oiñ txabola moduan erabiltzen da.
- Adarratza Behekuari "Lapurretxia" be deitzen jakon.

## ADARRATZA GOIKOA / Adarratza Goikua

### FITXA TEKNIKIA

**Egoeria**  
**Distantzia**  
**Altueria**  
**Datu**  
**aittagarriak**

Desagertuta.

4 kilometro.

410 metro.

- 1740xan agertzen da lehelengoz toki izen moduan eta 1888xan Andres Gisasola bizi zan bertan.
- Basarrixa erre egiñ ei zan aspaldi. Gaur egun piñudixan galdutako harri batzuk besterik ez dira gelditzen.
- Zezeil Behekoko Eugenio Iriondo Urionabarrenetxeana da.

## AGIRRE AZPIK OA / Agarr e Azpikua



**Distantzia:** 3 kilometro

**Altueria:** 295 metro

<p><b>Zer daken</b></p>	<p>Jose Bergara Baskaran (69), Maria Pilar Gisasola Baskaran (70), Jose Domingo Oñaederra Agirregabiria (49), Maria Antonia Bergara Gisasola (45), Ibon Oñaederra Bergara (21), Agurtzane Oñaederra Bergara (20), Aitziber Oñaederra Bergara (18) eta Josu Oñaederra Bergara (15).</p> <p><b>ANIMALIXAK:</b> Behiak (6, larrerakuak), izkuak (1), txahalak (6), ardixak (35), oilluak, untxiak (25), bilixak (6) eta txarrixa. Eusko labela dake.</p> <p><b>ORTUA:</b> Sasoiko barazkixak (etxerako), sagarrak, madarixak, keixak eta intxaurrak.</p> <p><b>LURRAK:</b> 13 hektarea.</p>
<p><b>Datu aittagarrixak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Agirre izeneko basarrixa 1625eko papeletan agertzen jaku lehelengoz. Gaur egungo Agirre Azpikua izenakin, ez da hurrengo gizaldira arte agertzen. 1747xan Joseph de Erbiti bizi zan bertan.</li> <li>- Oingo familixian aurrekuak bertan bizi izan dira gitxienez azkenengo 150 urtietan. Oñ 25 urte erosi zeбен.</li> <li>- Basarri honetako Benigno Bergara probalari ezaguna izan zan oñ 20 urte inguru.</li> <li>- Gerrate sasoiari gorrixen kuartela izan zan.</li> </ul>



## AGIRRE GAINEK OA / Agarr e Gaiñekua



**Distantzia:** 3 kilometro

**Altueria:** 300 metro

### ETXEA TEKNIKIA

#### Zer daken

Benita Eguren Atxa (69), Begoña Azpiri Eguren (37) eta Juanjo Sebastian Alustiza (38).

**ANIMALIXAK:** Behiak (4), txahalak (2), ahuntzak (3), astuak (1), oilluak (30).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak. Plazara eta dendetara egunero jaisten dira. Lau negutegi dakez eta Euskal Baserri produktuak landatzen eta saltzen dittue (lekia, letxugia, piparra eta tomatia). Frutia be badake (etxerako), priskuak (40).

**LURRAK:** 7 hektarea.

#### Datu aittagarrixak

- Agirre basarrixa 1625ian aittatzen da lehelengoz Lucas eta Francisco de Aguirre bizi ziran bertan 1747. urtian.

- Dana dala, etxiak bostehun urte inguru dakazela dirudi eta, basarrixa izatiaz gaiñera, lehenago sagardotegixa be bazan. Bertara eruaten ei ziran baillarako sagar guztiak. Oindiokan dolaria daka basarrixak.

- 1923an Joakin Azpirik erosi zetsan basarrixa Markiñako bati.

- Etxe pareko abeletxian oiñ 200 urte inguru errenteruak bizi ziran. 1747xan casilla nueva de Agirre agertzen da idatzitta papeletan eta Pedro de Abanzabalegi bizi zan bertan. Beraz, hasieran abeletxia zana, gero basarri bihurtu zan eta gaur egun txabolía da.

- Atarixan proba-harrixa dake.

- Azaldegibasarrixa aldamenian dago eta izen bixen baturatik jaixo zan Agirreazaldegí abizena, holan, beste herri batzuetako Agirreengandik desbardintzeko.

## AKARTEGIETA / Akarteitta, Akartei



**Distantzia:** 6 kilometro

**Altueria:** 530 metro

FITXA  
TEKNIKIA

**Egoeria**

Hutsik.

**Datu  
aittagarrixak**

- 1793kua da basarri honen lehelengo aittamena.
- Sasoi baten gari gehixen zeken basarrixetako bat zan. 1851ian anega bat eta kuarta bat emon zetsazen Arrateko kapeillauari.
- 1960 inguruan hustu zan eta gaur egun Arizmendi basarrikuena da.

## ALTZAGA / Altza



**Distantzia:** 6 kilometro

**Altueria:** 535 metro

FITXA  
TEKNIKIA

**Zer daken**

Bitoria Lezeta Bereziartua (90) eta Maria Urzuriaga Ugarteburu (66).

**Datu  
aittagarrixak**

- ANIMALIXAK:** Behi bat, okelarako.
- ORTUA:** Sasoko barazkixak (etxerako). Mendixan piñua eta sagarronduak dakez.
- LURRAK:** 11 hektarea.
- 1793kua da Alzagari gainian lehelengo aittamena.
  - Gerran bertatik urten bihar izan ziran eta Iturria Behekoa juan.

## ALTZUBARREN



**Distantzia:** 2,5 kilometro

**Altueria:** 180 metro

### ETXEA TEKNIKIA

Zer daken

Datu  
aittagarriak

Etxebikotxa da:

1. - Jose Arrillaga Larrañaga (74), Esperanza Iriondo Rementeria (68), Itziar Arrillaga Iriondo (31), Ainhoa Arrillaga Larrañaga (25).
2. - Javier Arrillaga Iriondo (45), Maribi Iristondo Arruabarrena (36), Naiara Arrillaga Iristondo (17), Iraitz Arrillaga Iristondo (13), Eneritz Arrillaga Iristondo (10).

**ANIMALIXAK:** Behiak (10, esnetarakuak), txahalak, idixak (6) eta oilluak (4).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (noixian behiñ plazara jaisten dira).

**LURRAK:** 2 hektarea. 3 edo 4 poligonoak eruan zetsezen.

- Basarrixan lehelengo aittamena 1747kua dan arren, 1625. urtian Altzubarren abizena agertzen da Eibarren, *Martin de Altzubarren*.
- 1747ko agirixetan abeletxia zala agertzen da.
- XIX. gizaldixan Altzubarren basarrixa monjena zan. Halan da be, gitxienez azkenengo 130 urtietan Iriondotarrena izan da.
- 1932xan basarrixa barriztu ein zeben.
- Domingo Arrillaga eta Jabier semia, sarri ibiltzen dira idi-probatan.



## ALTZUA / Altzu



**Distantzia:** 2,5 kilometro

**Altueria:** 265 metro

### FITXA TEKNIKIA

<b>Egoeria</b>	Jausitta.
<b>Datu aittagarrixak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorosta Baileko basarritarren artian entzundako ipoiñ zahar batek diñuan ez jentilak egindako basarrixa da. Eibarko basarri zaharretakua da eta balio artistiko-historikua duka.</li> <li>- <b>Altzu</b>a abizena ezaguna zan Eibarren. 1747ko idatzixetan basarri honetan Ignacio de Altzua bizi zala agertzen da. Dana dala, ezagutzen dogun lehelengo Altzuatarra, XVI. gizaldixan, Fray Esteban de Altzua izan zan, Cuban apezpiku izandako frantziskotarra.</li> <li>- Gaur egun basarrixan parterik haundiña jausitta dago eta hiru horma besterik ez dira tente gelditzen.</li> </ul>

## AMETZAGA / Ametza

### FITXA TEKNIKIA

<b>Egoeria</b>	Jausitta.
<b>Distantzia</b>	5,5 kilometro.
<b>Altueria</b>	475 metro.
<b>Datu aittagarrixak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarrixari gaiñian dakagun lehelengo datua 1747. urtekua da. Urte horretan, Martin de Larriategi Ametzaga bizi zala bertan badakigu. 1851. urtian, anega bat eta bi kuarta emon zetsen Ametzaga basarrikuak Arrateko kapeilluari.</li> <li>- 60 urte inguru daroiaz hutsik eta oiñ 25 urte, urtebarri egunian, jausi egiñ zan. Gaur egun hormak eta teillatu zati bat geratzen dira.</li> <li>- Azkenengo jabia <b>Gaztelu</b> basarriera jua zan eta harrezkero <b>Benetxina</b> Behekua basarrikuena da.</li> </ul>



## ASUA



**Distantzia:** 2 kilometro

**Altueria:** 215 metro

FITXA  
TEKNIKUA

**Zer daken**

**Datu  
aittagarrixak**

Hutsik. Angel (79) eta Mari Carmen Loiola Bergara (76) anai arrebak dira jabiak.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

- Leku-izen moduan lehenago ezagutu arren, Asua, basarri moduan 1747. urtian agertzen da lehelengoz agirixetan. Badakigu, sasoi horretan Andres eta Bartolome de Bergara bizi zirala bertan.

- 1995etik aurrera onduan egindako etxian bizi dira.



## AZALDEGI AZPIK OA / Azaldei Azpikua



**Distantzia:** 3 kilometro

**Altueria:** 305 metro

<p><b>Zer daken</b></p>	<p>Eduardo Jaio Bergara (66), Jose Alberto Jaio Laskurain (32), Andres Albizu Barrenetxea (43), Arrate Jaio Laskurain (36) eta Amaia Albizu Jaio (3).</p> <p><b>ANIMALIXAK:</b> Behiak (esnetarakuak) eta txahalak (danera 35 buru), oilluak (25).</p> <p><b>ORTUA:</b> Sasoiko barazkixak (etxerako). Artua jasotzen dabe. Aurten 3.000 kilo inguru jaso dittue. Esnia saltzen dabe eta batzuetan patatak be bai.</p>
<p><b>Datu aittagarrixak</b></p>	<p>- *Azaldegı abızena, Martın de Azaldegı 1500. urtıan agertzen da Eıbarren. 1651. urtıan be Azaldegı abızena agertzen da, Francisco de Azaldegı zan eta sasoi horretan San Lorentzo ermittako zaintzaıllıa. Basarrixan lehelengo aıttamena barrıagua da, 1747kua eta Azaldegı Gañekua eta Azpıkua bereızten dittuan lehelengo aıttamena 1857kua.</p> <p>- *Agırre eta Azaldegı basarrixak bata bestıan aldamenıan daguzenez, ızen bıxak batzerakuan sortu zan gaur haıñ ugarıxa dan Agırreazaldegı abızena. Holan, Eıbarko Agırreak beste Agırreetatik bereıztu ahal zeıkıazen.</p> <p>- Bertan bızi dan Eduardo Jaıo Bergara trıkıtiları ezaguna ızan da.</p> <p>- Basarrixա, oıñ hamar urte, barrıztu egıñ zeben.</p>

## AZALDEGI GAIÑEK OA / Azaldei Gaiñekua



**Distantzia:** 3 kilometro

**Altueria:** 315 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Zer daken**

Jose Manuel Jaio Agirreazaldegi (69), Julia Larrañaga Gallastegi (62), Isabel Jaio Larrañaga (42), Manuel Gonzalo Gil Pampin (50) eta Oihana Gonzalo Jaio (18).

**Datu aittagarrixak**

**ANIMALIXAK:** Astua eta oilluak.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak eta frutak (etxerako).

**LURRAK:** 7 hektarea.

- (Begiratu Azaldei Gaiñekua)\*.

- Gaur egun bertan bizi dan familixiana izan da beti.

- 1971an obrak egiñ zittuen basarrixan. Bertakuak esan deskuenez, sepultura ei zeken Eibarko parrokixan. Sepultura, jaiotzez eibartarrak ziranak bakarrik eukitzen zebeu.



## AZITAIN ERROTA / Azittain Errota

Egoeria	Desagertuta.
Distantzia	2 kilometro.
Altueria	85 metro.
Datu aitagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Azitaín Errota</b> 1584. urteko papeletan aittatzen da lehelengoz eta 1812xan, errotiak gaiñera, basarriak be badala agertzen da.</li> <li>- Ermittian atzekaldian zeguan. Behekaldian errotiak zekan eta gaiñekaldian basarriak.</li> <li>- Gizaldi honen erdikaldian, aleman batzuk tallar bat euki zeber eta goi partian, matadero zaharran azpikaldian, argindarra lortzeko presa txiki bat be bazekan. Kunbo batekin tabernian azpittik ura eruaten zeber presaraiño.</li> <li>- Azken gizaldi honen hasieran, basarriak sei edo zazpi etxebizitzatan zatitu zan eta errota izatiari laga zetsan. "Senaika" eta <b>Azitaín Zahara</b> izenekin be ezagutu izan da azken urtitan.</li> <li>- Gitxienez 20 urtez hutsik egon eta gero, jausten hasi zan eta autopistian peajia egitteko bota zeber. Gaur egun, kanal zati bat besterik ez da gelditzen.</li> </ul>

## AZITAIN / Azittain tabernia



**Distantzia:** 2 kilometro

**Altueria:** 90 metro

Zer daken	Mercedes Unamuno Agirre (68), Jose Angel Esteban Unamuno (48), Maria Angeles Cuende Aramendi (46), Anartz Esteban Cuende (22) eta Egoi Esteban Cuende (18).
Datu aitagarrixak	<p><b>ANIMALIXAK:</b> Oilluak, bilixak eta antzarrak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarri hau tabernia da oiñ dala 110 urtetik gitxi-gorabehera. Gaur egun barriztuta dagan arren, gerra osterak arte basarriak izan da. Tabernia gaiñekaldian zeguan eta kortia azpikaldian. Azitain Errotakua zanak, Agirrek egiñ ei zeber tabernia, dana dala basarri moduan be ezagutu izan da, terrenuak eta kortia be bazekazen.</li> <li>- Ahoz jasotako informaziñuan arabera, <b>Azitaín</b> serora-etxia edota sakristau-etxia izan zan beran sorreran.</li> </ul>



## AZITAIN TXOPERENA / Txopenekua

FIGXA  
TEKNIKIA

Egoeria	Etxe bihurtuta. Larreategitarrena.
Distantzia	2,5 kilometro.
Altueria	95 metro.
Datu aitagarrizak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarrixan lehelengo aittamena 1847kua da.</li> <li>- Oiñ berrogei urte inguru basarrixa izatiari laga zetsan.</li> <li>- 1878. urtian erre egiñ zan.</li> <li>- U<sup>so</sup> etxea izenakin be ezagutu izan da.</li> </ul>

## BERRETXINAGA BEHEKOA / Berretxiña Behekua



**Distantzia:** 5,5 kilometro

**Altueria:** 525 metro

FIGXA  
TEKNIKIA

Zer daken	Juan Jose Azpiri Larrañaga (70).
Datu aitagarrizak	<p><b>ORTUA:</b> Sasoiko barazkizak (etxerako).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarrixaz lortu ahal izan dogun aittamenik zaharrena 1793kua da.</li> <li>- Etxetxua txabolak be Berretxiña Behekua da eta txabola hau perratzailiak erabiltzen zeban inguruko basarriretako ganaua perratzeko. Oiñ dala 15 urtera arte eguazteno etortzen zan. Eibar inguruko perratzalle bakarrak, Etxetxuan, Barinagan eta Azitainen zeren.</li> <li>- Akondixa eta Urko magaleko Aitxorbel txabolak be Berretxiña Behekuanak dira.</li> <li>- 1990ian basarri erdixa jausi egiñ zan.</li> <li>- Juan Jose Azpiri "Berretxiña" probalarixa izandakua da. Oiñ 30-40 urte inguru Arrateko probak bost bidar irabazitakua da.</li> </ul>

## BERRETXINAGA GOIKOA / Berretxiña Goikua



**Distantzia:** 5,5 kilometro

**Altueria:** 525 metro

Zer daken

Pedro Maria Arriaga Larrañaga (53).

Datu  
aittagarrixak

**ANIMALIXAK:** Behiak (5, larrerakuak).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

**LURRAK:** 20 hektarea.

- Basarrixan lehelengo aittamena 1793kua da.

- Pedro Mari Arrillagan aittitta zana Bolibartik etorritakua zan eta basarrixa erosi zeban oiñ dala 70 urte inguru.

- Basarrixa 1993an barriztu zan.

- Jose Andres Arriaga, leku askotan ezaguna izandako uztargillia zan. 1975. urtian El Correo egunkarixan argitaratutako artikulu batek diñuanetz, Jose Andres Arrillaga "Berretxina" Euskal Herrixan geratzen ziran azken uztargillietakua zan. Burdixak eta eskubarak be gitten zittuan. 1975. urtian hil zan 65 urte zittuala.

## BIRIÑO



**Distantzia:** 3 kilometro

**Altueria:** 270 metro

### FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Jose Alberdi Atxa (72) eta Maria Zubia Bastida (67) dira ugazabak. 1996ko azarotik gazte kuadrilla bat bizi da basarrixan.

Datu aittagarriak

**ANIMALIXAK:** 1989ra arte ganaua euki zeben (14 behi). Inkubadoria be bazeken eta txitak hazten zittuen (600).

**ORTUA:** Oñi intxaurronduak (80), sagarronduak (50) eta piñudixak dakez baiña basarrixa martxan zeguanian Eibarko basarririk jorixenetakua zan. Gehixen bat porruak (10.000) eta letxugak (3.000) landatzen zittuen.

**LURRAK:** 12 hektarea.

- 1747xan Tomas eta Agustin Gallastegi bizi ziran bertan.

- 1813an Martin Alberdi Bergara bizi zan bertan eta 1841ian Jose Alberdi. Azken honen semiak Jose Alberdi Aldazabalek erosi zeban basarrixa, 1870ian. Agustina monjeri erosi zetsan 4.500 pezetatan eta hiru jeneraziñon artian ordaindu bihar izan zeben.

- Gerra ostian doblau egiñ zan: zati bat gehittu, ganbarako egurra kendu eta ladrillua sartu eta teillatua aldatu.

- Eibarko lehelengo basarri-pistia ein zeben Oñe eta Alzubarrenekin batera 1964an. Regadio automatikua dakan basarri bakarretakua da.

## BIZKARTEGI / Bizkartei

### FITXA TEKNIKIA

Egoeria

Desagertuta.

Distantzia

3,5 kilometro.

Datu aittagarriak

- 1747. urtian basarrixan Miguel de Bergara bizi zala badakigu. Sasoi horretako agirixak eskaintzen deskue basarri honen gaiñeko lehelengo aittamena.

- 1851. urtian kuarta 1 eta 2 almude emon zetsen basarriekuek Arrateko kapeilluari.

- 1888xan Miguel Aranzeta Egurrola, andria eta lau seme-alaba bizi ziran Bizkartein. 1903an, Francisco Narbaizak Jose Maria Gisasolari erosi zetsan 10.000 pezetatan. Gerora hustu eta beranduago jausi egiñ zan. Gaur egun harri multzo bat besterik ez da gelditzen.



## ELUS



**Distantzia:** 3 kilometro

**Altueria:** 300 metro

Zer daken

Balentina Gaztelu Olaso (82), Jose Narbaiza Gaztelu (57), Lucio Narbaiza Gaztelu (56), Josefa Aizpitarte Astigarraga (56) eta Idoia Narbaiza Aizpitarte (22).

Datu aittagarrixak

**ANIMALIXAK:** Behiak (4, esnetarakuak), txahalak (3), oilluak (28) eta astua. Esnia saltzen dabe.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak, (egunero plazara jaisten dira).

**LURRAK:** 12 hektarea.

- 1857xan agertzen da basarrixaren gaiñian lehelengo aittamena.
- 1914an Francisco Narbaizak erosi zetsan basarrixa 8.500 pezetatan Ignazio Ituarteri.
- Zatika egindako basarrixa da. Hasiera baten Agaren abeletxia ei zan, baiña gero errenteruak sartu ziran eta Elus izena ipini jakon.
- Oiñ dala 80 bat urte barriztu egiñ zan etxia eta basarri itxuria emon jakon.
- Aganatzta Behekua eurena da.
- Andres Narbaiza "Elus" pandero-jolia eta kantarixa zan.



## ETXE TXIKI



**Distantzia:** 3,5 kilometro

**Altueria:** 85 metro

FITXA  
TEKNIKIADatu  
aittagarrixak

Aspalditik etxia da eta bertan Antonio Baz Villamarín (57), Rosa Viriato Pérez (51) eta Jose Antonio Baz Viriato (31) bizi dira.

- Azitaingo ermittian atzekaldian dago, trenbidian bestekaldian. Eltzartza basarritik urrian daguanez, Eltzartza Txiki izenagaz be ezagutu izan da.

- Etxe-Txiki, basarrixaz gaiñera perratokixa be bazan. Astian behiñ juaten zan bertara Berdangilloko perratzaillia inguruko basarritarren ganaua perratzeru. Oindiokan gelditzen dira harrerixa zaharran parte batzuk.

## EZKAREGI / Ezkarei



**Distantzia:** 3,5 kilometro

**Altueria:** 255 metro

**Zer daken**

Zezenia Lezeta Oregi (81), Enrike Arakistain Lezeta (59), Angela Narbaiza Gaztelu (53) eta Unai Arakistain Narbaiza (19).

**ANIMALIXAK:** Behiak (10, esnetarakuak), oilluak (40) eta astua. Esnia saltzen dabe.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak. Porruak eta patatak gehixen bat (egunero jaisten dira plazara).

**Datu aittagarrixak**

- Basarrixaren gaiñian lehelengo aittamen idatzixa, 1480ko agirixetan topatu dogu. 1747xan Diego de Ezkaregi bizi zan bertan.
- XIX. mende hasieran erre egiñ zan eta gaur egungo etxia 1803kua da. Hala diño ate gaiñian dakan erreliebiak. Fetxiaz gaiñera, bi kopa dakaz marraztuta eta etxian bestekaldian kurutze bat.

- Lezetatarrena izan da gitxienez azkenengo 200 urtietan. Oiñ lau urte erosi zeбен eta 1993an barriztu zeбен.

## EZKAREGI ERROTA / Ezkarei Errota



**Distantzia:** 3 kilometro

**Altueria:** 225 metro

### FITXA TEKNIKUA

<p><b>Datu aittagarrixak</b></p>	<p>Josefa Arana Ugarteburu (75), Amaia Narbaiza Arana (52), Manuel Angel Alvarez Fernández (51), Luis Miguel Alvarez Narbaiza (27) eta Iker Alvarez Narbaiza (20).</p> <p>Basarrixan lehelengo aittamena 1747koa da eta orduan urtian Juan de Gallastegi bizi zan bertan.</p>
----------------------------------	---

## GOROSTIETA ABELETXE / Gorosta Abeletxe



**Distantzia:** 5,5 kilometro

**Altueria:** 490 metro

<p><b>FITXA TEKNIKUA</b></p>	<p><b>Datu aittagarrixak</b></p>	<p>Jose Maria Guillen Armendariz (46), Miriam Bake Ugarteburu (37), Jone Guillen Bake (13) eta Mikel Guillen Bake (10).</p> <p>- Jatorriz, Gorosta Gaiñekuan edo Gorosta Beñan abeletxia zan, baiña, Eibarko abeletxe askori pasatu jakuen legez, juan zan gizaldixan errenteruak sartu, barriztu eta basarri bihurtu zeben. 1812ko basarri zerrendan, dagoeneko basarrixa dala agertzen da eta Errebaleko monjen jabegokua da.</p> <p>- Azken urtietan goittik behera barriztu dabe.</p>
------------------------------	----------------------------------	---



## GOROSTIETA AZPIKOA / Gorosta Azpikua



**Distantzia:** 6 kilometro

**Altueria:** 435 metro

Zer daken

Lau etxebizitza ditu:

- 1 - Frantziska Atxa-Albizuri Aldazabal (79).
- 2 - Maria Atxa-Albizuri Aldazabal (84).
- 3 - Kattalin Atxa-Albizuri Aldazabal (82).
- 4 - Santi de Castro Concejo (67) (azken hau errenterua da).

Datu  
aittagarrixak

**ANIMALIXAK:** Oilluak (8) eta astua.

**ORTUA:** Sagarrak, madarixak, melokotoiak, keixak, intxaurrak eta urrak (etxerako).

**LURRAK:** 25 hektarea.

- Badirudi Gorosta basarrixen artian, barrixena dala. Lehelengo aittamena 1851kua da Gorosta Etxebani izenakin.

- Obria egiñ zebeñ oiñ dala 44 urte eta orduanditik etxelaurotxa da.

- Oiñ 82 urte inguru, Urriñeko errenterua Gorosta Azpikoa juañ ziran eta bertan bizi ziranak Txara Azpikoa.



## GOROSTIETA BEÑA / Beña



**Distantzia:** 6 kilometro

**Altueria:** 465 metro

## FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Datu  
aittagarrixak

Txomin Alberdi Arrizabalaga (84), Maria Yarza Agirrebeña (83), Andres Garate Arrillaga (61), Maria Elena Alberdi Yarza (55) eta Isabel Garate Alberdi (31).

**ANIMALIXAK:** Behiak (2, larrerakuak), txahalak (2), zaldixak (2), oilluak (18), oillaskuak (24), astua eta txarrixa.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (astian bi aldiz jaisten dira plazara eta dendetara).

**LURRAK:** 16 hektarea.

- \*Gorostieta anaiak 1567xan eskatu zeben hidalgixa titulua.

- \*1601eko agirixetan, Gorostieta izeneko basarri batzuen barri emoten jaku baiña ez da azaltzen zeintzuk ziran. Seguru asko Gorosta Beña eta Gorosta Gañe izango ziran, horrek dira-ta 1747ko idatzixetan agertzen diran basarri bixak. Urte horretan Gorosta Beñan Felix eta Baupista de Alberdi bizi ziran.

- Gorosta Azpikua egiñ eta gero, Beña basarrixa Gorosta Erdiko izenakin be ezagutu izan da.

- 1812ko agirixengaittik badakigu basarrixa sasoi horretan Errebaleko monjena zala. Dana dala, basarrixa azken gizaldiotan Alberditarrak bizi izan dira. Lehelengo erreteruak ziran eta, juan zan gizaldi hasieran, Txomin Alberdin aittittan aittak erosi egiñ zeban 4.500 pezetan truke.

- Neolitiko sasoiko aizkora bat topatu zeben basarriko ortuan.

- Beña basarrixa oindiokan ikusi leike basarrixa, lehenago, alkobak zittuala. Alkobak antxiña basarrixa egoten ziran logelak dira. Tela batek banatzen zittuan gelak ziran alkobak. Normalian pasilluan aldamenetan egoten ziran eta pasillo amaieran komuna egoten zan.

-Txomin Alberdi "Beña", Eibarren probalari ezaguna izan da eta Arrateko lehelengo kopia berak irabazi zeban.

## GOROSTIETA GAINA / Gorosta Gaiñekua



**Distantzia:** 6 kilometro

**Altueria:** 475 metro

**Zer daken**

Karmen Olalde Zuazo (77), Jose Maria Atxa Olalde (52), Enrike Atxa Olalde (47) eta Maria Kruz Atxa Olalde (42). Kalian bizi dira baiña sarritan igotzen dira bertara.

**ANIMALIXAK:** Oilluak (24), untxiak(18) (etxerako).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako). Intxaurronduak eta sagarronduak.

**LURRAK:** 18 hektarea.

**Datu aittagarrixak**

- (Begiratu Gorosta Beña)\*.

- 1747xan Gorosta Gaiñen Andres Sebastian de Atxa bizi zan.

- 1812ko agirixengaittik badakigu basarrixa sasoi horretan Errebaleko monjena zala.

- Jose Mari Atxan aitta "Gaiñeko" probalarixa zan eta Gorosta Beñakuakin batera ibiltzen zan.

## ITSASO



**Distantzia:** 4 kilometro

**Altueria:** 420 metro

## FITXA TEKNIKUA

**Zer daken**

Antonio Olea Rekalde (90), Jesusa Unzetabarrenetxea Zabala (79), Alberto Olea Unzetabarrenetxea (55) eta Angel Mari Olea Unzetabarrenetxea (44).

**Datu aittagarriak**

**ANIMALIXAK:** Oiñ dala zazpi urte kendu zittuen behiak eta ardixak ipini. Ardixak (60) eta oilluak (5). Ardi-esnia saltzen dabe. Gaztaia be egitten dabe, etxerako.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

- 1747. urtekua da basarrihan lehelengo aittamena. Urte horretan Ignacio de Alberdi bizi zan bertan.

- Oiñ dagan basarrihan barrixan da, oiñ 47 urte egindakua.

- Luziano Unzetabarrenetxea Iraegik erosi zeban basarrihan eta Naiorbetik Itsasora ezkondu zan, oiñ 85 urte. Luziano Itsaso basarrihan etorri aurretik Arikixanekuak bizi ziran hamen.



## MAGDALENA / Maala

Egoeria	Jausitta.
Distantzia	6 kilometro.
Altueria	450 metro.
Datu aitagarririk	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Maala (Santa Maria Magdalena) ermittian aldamenian zeguan eta serora-etxia izan zan. Ez dakigu basarrixa noizkua zan, baiña ermittia XVI. gizaldirako eginda zeguan.</li> <li>- Basarrixa lehelengo aittamena 1672kua da. Urte horretan Albizuri izeneko gizon bat bizi zan bertan. Beranduago, 1747. urtian, Asensio de Iriondo izeneko gizon bat bizi zan bertan.</li> <li>- Sasoi horretan, herri bakoitxian "Lazaron gaixotasuna", lepria, zekenak zaintzeko ospitale moduko bat egoten zan, beti herritik urrin eta Santa Maria Magdalenan zaindaritzapian. Seguru jakitzerik ez dagan arren, Maala basarrixa Lazaretua izan zala pentsatu geinke.</li> <li>- Gizaldixetan zihar, Udaletxiana izan zan. 1810ian, Frantsesen kontrako gerrarako dirua lortzeko, saldu egiñ zebe. Martxuak 13an 6.698 errialetan erosi zeban Soraluzeke Francisco Martin de Arangurenak.</li> <li>- 1851an oindiokan martxan zeguan, baiña gizaldi honen hasieratik aurrera ez da basarri moduan erabili. Karmen eta Jose Mari izan ziran bertako azkenengo bizilagunak. Gorosta Gañekuak erosi zebe oiñ dala 70 urte inguru eta azken gizaldi honetan borda eta txabolia izan da.</li> <li>- 1991. urtian bota egiñ zebe jausteko arriskuan zegualako.</li> </ul>



Ermittaren onduan zeguan Maala basarrixa.  
Ondiño orma zatixak dagoz bertan.

## MARAPILAGA / Maapilla



**Distantzia:** 5 kilometro

**Altueria:** 375 metro

## FITXA TEKNIKUA

**Zer daken**

Jose Ignazio Agirregomezkorta Elizburu (66).

**ANIMALIXAK:** Astuak (2), ahuntzak (4). Oiñ 30 urte kendu zittuen behi eta zaldixak.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako). Mendixan piñua dake.

**LURRAK:** 14 hektarea.

**Datu aittagarrixak**

- Basarrixari buruz lortu dogun lehelengo aittamena 1851. urtekua da. Urte horretan, anega bat, 5 kuarta eta almude 2 gari emon zetsazen Maapillako basarrikuak Arrateko kapeilluari.

- Ameriketatik bueltan, Pedro Astarloa Aldapek erosi zeban oiñ 70 urte inguru.

- 1950ian arditokixa txukundu eta haunditu egiñ zan eta labia eta askia ipini zittuen.

## NAGIORBE GOIKOA / Naiorbe



**Distantzia:** 3 kilometro

**Altueria:** 310 metro

Zer daken

Lorenzo Lomana Pineda (40) eta Kristina Uribezubia Eguren (30).

**ANIMALIXAK:** Ez dake abererik. Lau erletxe dakez.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak, sagarrak, makatzak, mahatsa, pikuk eta intxaurrek (etxerako).

**LURRAK:** 3 hektarea.

Datu  
aittagarrixak

- 1857koa da basarri honen lehelengo aittamen ezaguna.

- Gerra ostian 4 etxebizitzatan banatu zan eta errentero ugari pasatu da bertatik azken urtiotan. Sei urtez hutsik egon eta gero, 1993an erosi zeben gaur egungo jabiak. Goitik behera barriztu dabe eta 1995etik bizi dira bertan.



## NEBERA



**Distantzia:** 5,5 kilometro

**Altueria:** 480 metro

## FITXA TEKNIKUA

## Zer daken

Jose Urzuriaga Ugarteburu (63), Maria Esnaola Otegi (64) eta Jose Mari Urzuriaga Esnaola (28).

**ANIMALIXAK:** Behiak (4, esnetarakuak), idixak (2) eta astua. Eusko labela dake.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (noixian behiñ jaisten dira saltzera). Sagarrak eta intxaurrak.

**LURRAK:** 11 hektarea.

## Datu aitagarrixak

- 1747kua da ezagutzen dogun lehelengo aittamena. Urte horretan, Sebastian de Alberdi Nebera bizi zan basarrixan.

- Basarri gaiñekaldian neberia ei zeguan. Neberia, neguko edurra gordetzeko lekua zan, gero udan edur hori saldu egitten zan. Edur libriak 1746. urtian, libra bat balio zeban. Eibarko neberan edurrik gelditzen ez zanian, Elgoibar eta Soroluzetik ekartzen zeben. Bestela, Markina, Ziortza edo Bergaratik.

- Jatorriz basarri txikixa zan eta 1968xan barriztu eta haunditu zeben.

- Urzuriagarrena da aspaldittik.

- Basarriko biharretarako oindiokan idixak erabiltzen dittuan basarri bakarretakua da.

## ORBEA / Orbe



**Distantzia:** 2,5 kilometro

**Altueria:** 200 metro

### FIGXA TEKNIKUA

#### Datu aittagarrixak

Jose Alberdi Agirregomezkorta (87), Feliziana Atxaorbea Uriarte (83) eta Gregorio Alberdi Atxaorbea (60).

- 1623kua da basarrixaren gaiñian ezagutzen dogun lehelengo aittamena. 1747. urteko agirixetan, Orbea Atxa bizi zala agertzen da.

- Oso ezaguna izan zan Eibarren Gregorio Atxaorbea Ordeorka "Orbe" (1884-1967). Basarritarren alkate izan zan 1930 inguruan eta Eibarko fiskal 1934an. Lan asko egiñ zeban basarritarren alde. Uran kanalizaziñua, Arrateko kolonia (1910), Santa Kurutzeko eskolia eta beste lan batzuk berak bultzatu zittuan.

- Azittaineko poligonuan 3. fasia egitteko, Orbea basarrixa bota egiñ da. Gaiñekaldian etxe barrixa jaso dabe eta 1997ko udabarrizaz geroztik bertan bizi dira.



## SAGARBIETA / Sagarbitsa



**Distantzia:** 3,5 kilometro

**Altueria:** 365 metro

### ETXEA TEKNIKUA

**Zer daken**

Emilio Azurmendi Agirre (60), Felisa Agirrebeña Osa (57), Arrate Azurmendi Agirrebeña (34), Aitor Zubizarreta (31), Ana Mari Azurmendi Agirrebeña (31), Jose Zubizarreta eta Jon Azurmendi Agirrebeña (27). Kalian bizi dira baiña sarritan igotzen dira.

**Datu aittagarrixak**

**ANIMALIXAK:** Untxiak (10), oilluak (6). Ardixak pintzeko asmua.  
**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).  
**LURRAK:** 4 hektarea.

- Lehelengo aittamena 1847koa da baiña badirudi basarrixa askoz lehenagokua dala. Urte horretan, Domingo de Azpiri bizi zala bertan agertzen da sasoiko idatzixetan.

- Sagarbieta izena, inguruan sagasti haundixak zeguazelako ipini zetsen.

- Lau zatitan egindako basarrixa da. Gitxienez azkenengo 150 urtietan oingo jabien familixiana izan da.

- Gerra ostian haunditu eta barriztu zeben. Oiñ dala gitxira arte bonba batek egindako zulua euki dabe orogarri moduan horman. Basarri aldameneko txabolía oillotokixa zan. 800 oillo eukitzera heldu ziran. Oiñ barriztu eta soziedade moduan erabiltzen dabe.

- Basarri honetako semia zan Marino Agirre Telleria trikitilari ezaguna izan zan.

- Emilio Azurmendi basarritarren alkatia izan zan zortzi urtian zihar.



## TXABOLA PAGOLA / Txabola



**Distantzia:** 6 kilometro

**Altueria:** 645 metro

**Zer daken**

Jose Maria Muguruza Ibarzabal (67) eta Margarita Urzuriaga Agirre (60).

**ANIMALIXAK:** Behiak (4, larrerakuak), txahalak (3), untxiak (8), oilluak (12) eta astua. Eusko labela dake.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

**LURRAK:** 11 hektarea.

**Datu aittagarrixak**

- Basarri honetaz dakagun lehelengo aittamena 1793koa da.
- Basarri hau berez, Akondia basarrixan txabolia zan. Basarri bihurtu zanian, Txabola Pagolakuak beste txabola bat egiñ zeben, Txabolan Txabola. Oñ, azken hori, soziedade moduan erabiltzen dabe.
- Agirre familixiana da gitxienez juan zan gizaldittik.
- Basarri honetako seme bat Alfontso XII.aren zerbitzari eta lagun miña izan zan.
- Gipuzkoako basarrixen artian altuen daguenetarikua da.

## TXARA AZPIKOA / Txarakua



**Distantzia:** 1,5 kilometro

**Altueria:** 150 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Egoeria**

Desagertuta. Igez bota zan.

**Datu  
aittagarrixak**

- Basarri honen lehelengo aittamena 1812kua da. Jatorriz, Txarakua izenagaz ezagutzen zan. Beranduago, goratuago Txara Gorkua egiñ zanian, Txara Behekua izena hartu zeban.

- Bariantian obrak eta sute batek eragindako kaltien ondorioz, oso egoera txarran gelditu zan. Jausteko zorixan zeguanez, oiñ dala gitxi bota egiñ zeban. Asua basarrixan azpikaldian zeguan, bariantian lehelengo fasian aldamenian.

- Felix Urangana da.

## TXARA GAINEKOA / Txara Gaiñekua



**Distantzia:** 1,5 kilometro

**Altueria:** 190 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Egoeria**

Desagertuta.

**Datu  
aittagarrixak**

- Basarrixa aspaldi jausi zan eta azken aldixan txabola moduan erabili dabe. Dana dala oindiokan jabiak ortua daka eta askotan igotzen da bertara.

- Juan Agirrebeña Arizaga da ugazaba.

## URKIZUGAIN

FITXA TEKNIKIA	Egoeria	Desagertuta.
	Altueria	150 metro.
	Datu aittagarrixak	- Oso gitxi da basarri honen gaiñian dakiguna. 1767. urteko paperetan <i>Urki zu Goia</i> izeneko basarri bat aittatzen da eta 1950. urtian <i>Urki zugañ</i> izeneko beste bat. Urkizu inguruan, Ego errekan iparraldian zeguala bakarrik dakigu. <i>Urki zuegibasarri</i> xan beste izen bat be izan leike.

## URRITXAIN

FITXA TEKNIKIA	Egoeria	Jausitta.
	Distantzia	6 kilometro.
	Altueria	560 metro.
	Datu aittagarrixak	- Urritzaran toki izena lehenago agertzen jakun arren (1793), basarrixan lehelengo aittamena 1851kua da, bertoko jabiak anega bat eta kuarta bi gari emon zetsazentian Arrateko kapeilluari. 1888xan Florencio Aldazabal Iriondo bizi zan bertan. - 1907xan oindiokan martxan zeguala dakigu, baiña hortik gitxira itxi eta jausi zan. <i>Isaso</i> basarrikuena da. - Krabeliñetik 200 metrora zeguan, <i>Akarte ita</i> basarrixan gaiñekaldian. Gaur egun piñu artian galdutako harri multzo txiki bat besterik ez da gelditzen.



## ZEZEIL BEHEKOA / Zezeil Behekua



**Distantzia:** 4,5 kilometro

**Altueria:** 425 metro

## FITXA TEKNIKIA

**Zer daken**

**Datu  
aittagarrixak**

Eugenio Iriondo Urionabarrenetxea (62). Kalian bizi da baiña sarrittan igotzen da.

**ANIMALIXAK:** 1973an kendu zittuen aberiak.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

- \*Basarrixari buruzko lehelengo aittamena 1747kua dan arren, badirudi basarrixa askoz zaharragua dala eta 1498ko agirixetan agertzen da lehelengoz Zezeil abizena, Juan de Çeçeil. Izen ezaguna izan zan Eibarren XV-XVIII gizaldixen artian. Jatorriz, basarri bakarra zan eta ,1747xan, Diego de Iriondo Zezeil zan jabia.

- Zezeilbasarrixeri Zezeileta Zezeilbe esaten jakue.

- Iriondotarrena izan da azken gizaldixan. Lehelengo errenteruak izan ziran eta oiñ 60 urte inguru Pedro Iriondo Leturiondok erosi egiñ zeban.

- 1973tik kalia bizi dira baiña egun bittik behiñ igotzen dira bera eta beran anai-arrebak ortua zaintzera.

## ZEZEIL GOIKOA / Zezeil Goikua



**Distantzia:** 5 kilometro

**Altueria:** 425 metro

PIIXA  
TEKNIKUA

Zer daken

Madariagatarrena da.

Datu  
aittagarrixak

**ANIMALIXAK:** Behixa, txahala, astua.

**ORTUA:** Ortua, etxerako.

- (Begiratu ZezeilBehekoa)\*.

- 1925. urtian egiñ zan basarri-zerrendan, Manuela Arizaga agertzen da Zezeilbasarri bixen jabe. Horretaz gaiñera, Nebera, Am etza, Ezkaiei eta EzkaieiEnota basarrixak be beranak ziran.

- Gizaldi hasieran Migel Iranzuegik erosi zeban eta gaur egun beran ondorenguen da. Kalia bizi dira oin dala 10 urtetik, baiña egunero igotzen dira.

